SILICIE – Zerga Berezien Kontabilitate Liburuak Berehala Hornitzeko Sistema

# SILICIEV2 FORMULARIOA BETETZEAREN BIDEZKO ELKARTRUKEAREN ALDERDI OROKORRAK

**Ogasun eta Finantza Saila**

**Bizkaiko Foru Aldundia**

2026/02/10

| | | |
|---|---|---|
| **Egilea:** Foru Ogasuna | **Data:** 2026/02/10 | **Bertsioa:** 1.0 |

| Ediz. | Berrik. | Data | Deskribapena | G(*) | Orrialdeak |
|---|---|---|---|---|---|
| 0 | 0 | 2026/02/10 | Hasierako bertsioa | | 35 |

**(*) Ekintza: G= Gehitu; O= Ordeztu**

# AURKIBIDEA

**AURKIBIDEA** ..... 3

**1 SARRERA** ..... 4

**2 BERTSIOEN KONTROLA** ..... 6

2.1 Hasierako 0.0 bertsioa ..... 6

**3 FUNTZIONAMENDUAREN ESKEMA OROKORRA** ..... 7

3.1 Establezimendua hautatu ..... 10

3.2 Menu nagusia ..... 11

3.3 Kontabilitateko Ekitaldiaren Irekitzea ..... 12

3.4 Kontabilitateko Ekitaldien Kontsulta ..... 14

3.5 Kontabilitateko Ekitaldiaren Xehetasuna ..... 15

3.5.1 Kontabilitateko Idazpenen Kontsulta ..... 16

3.5.2 Izakinen Kontsulta ..... 19

3.5.3 Izakinen Itxieren Kontsulta ..... 22

3.5.4 Kontabilitateko Idazpenen Alta ..... 25

3.5.5 Kontabilitateko Idazpenen Deuseztatzea ..... 29

3.5.6 Kontabilitateko Ekitaldiaren Itxiera ..... 33

# 1 SARRERA

1512/2018 Errege Dekretuak, abenduaren 28koak, besteak beste, zerga bereziei buruzko araudiaren 50. artikulua aldatu du. Nolanahi ere, aipatu araudiak zergaren xede diren produktuei eta, bidezkoa bada, lortzeko lehengaiei dagokienez, kontabilitatea eramateko eskakizuna arautzen du.

Azaldutako araudi-aldaketaren ondorioz, zerga-bereziei buruzko arautegiak eragiten dien establezimenduek zergen kontabilitatea eramatearen eskakizuna bete behar dute eta, horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiko Egoitza Elektronikoaren bidez euskarri informatikoan kontabilitate sistemaz baliatu behar dute.

Eskakizun hori betetzea ahalbidetu eta errazteko, araudiaren arabera nahasitako establezimenduek Bizkaiko Foru Ogasunari kontabilitate-idazpenak emateko kontabilitate-sistema informatikoa garatzeari ekingo zaio. Zerga berezien kontabilitate liburuak kudeatzeko sistema (SILICIE v1) bat ezarri zen. Hala, behartutako zergadunek (eta borondatez erabiltzea erabakitzen dutenek) Zerga Bereziekin lotutako kontabilitate idazpenen xehetasunak bidali beharko dituzte, egituratutako formatu baten arabera eta foru aginduak zehaztutako epean, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez. Informazio hori zentsatutako establezimendu bakoitzeko bidaliko da.

Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez fabrikazio zerga berezien xede diren produktuen kontabilitatea orokorki ezarri ondoren, sistema horren alderdi batzuk aldatu behar dira, kontabilitateko ekitaldien araberako kontabilitatean oinarritutako sistema baterantz aurrera egiteko. Sistema horretan, kontabilitateko idazpenen hornidura mugimendua, eragiketa edo prozesua gertatzen den kontabilitateko ekitaldiari lotuta egongo da: SILICIE v2.

Horretarako, kontabilitateko ekitaldia definitzen da, urte naturalarekin bat datorrena, eta kontabilitateko ekitaldi bakoitzaren irekiera eta itxiera jakinarazpenak egitea aurreikusten da, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez, eta kontabilitateko ekitaldien itxieraren berri eman ez zaien kontabilitateko idazpenak hornitzea.

Aplikazioaren lehenengo bertsioarekin (SILICIE v1) bezalaxe establezimenduek formatu argi eta egituratua izango dute Bizkaiko Foru Ogasunari informazioa bidaltzeko. Horrez gain, beste betebehar batzuk murriztuko zaizkie; esate baterako, eragiketen aitorpenak aurkezteko derrigortasuna ezabatuko da. Kontabilitate-liburuak eramateko sistema berriari esker, Bizkaiko Foru Ogasunak zerga-iruzurra kontrolatu eta prebenitzeko informazio nahikoa eta kalitatezkoa izango du. Izan ere, horiek lehentasunezko helburuak dira, baina, aldi berean, zergadunei eskakizunak betetzeko laguntza-tresna eskainiko die.

SILICIE v2 (Zerga Berezien Kontabilitate Liburuak Berehala Emateko Sistemaren 2. bertsioa) sistema indarrean sartuko da 2025eko uztailaren 1ean.

# 2 BERTSIOEN KONTROLA

## 2.1 Hasierako 0.0 bertsioa

Dokumentua sortzea.

## 3 FUNTZIONAMENDUAREN ESKEMA OROKORRA

Sistemaren funtzionamendua oinarritzen da establezimenduek Bizkaiko Foru Ogasunari egituratutako informazioa bidaltzean, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez, hainbat kanaletatik:

- Web zerbitzuak (lehenetsitako bidea)
- Fitxategiaren inportazioa
- Idazpen indibidualaren web formularioa




*1. irudia: SILICIE funtzionamendu eskema*

Dokumentu honek jasoko du zentsatutako establezimenduek hornitu behar dituzten zerga bereziei dagokien zerga informazioa, CSV fitxategien inportazioaren bidez.

Hori dela eta, establezimendu bakoitza aurrez identifikatuta egongo da Jarduera Ekonomikoaren Kode batekin, eta establezimendu mota baten arabera sailkatuta. Bada, idazpenak egitura normalizatu baten arabera bidali beharko ditu, kontabilitateko egitatea gertatzen denetik aurrera zehaztutako denbora tartean.

Establezimendu motaren arabera zerbitzu serie ezberdina emango da, ahalbidetuko duena idazpenaren eremuko datu mota eta eragiketa propioak espezializatzea.




*2. irudia: SILICIE v2 funtzionamendu eskema*

Horretarako, sistema lau zerbitzu talde ezberdinetan banatu da:

- Alkoholaren eta edari alkoholdunen zergekin lotutako establezimenduak. Honakoak hartzen ditu barne:
  - Garagardoaren gaineko zerga.
  - Ardoaren eta edari hartzituen gaineko zergak.
  - Bitarteko produktuen gaineko zerga.
  - Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zergak.
  - Zigarro elektronikoetarako likidoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen gaineko zerga.
- Tabako laboreen gaineko zerga.
  - Zigarro elektronikoetarako likidoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen gaineko zerga.
- Establezimenduan bertan edari alkoholdunen gaineko zergen eta tabako

laboreen gaineko zergen pean dauden produktuak biltegiratu eta merkaturatzen dituzten establezimenduak.

- Hidrokarburoen gaineko zerga

Hona hemen eskainiko diren zerbitzuak:

- Kontabilitateko ekitaldien irekitzea.
- Kontabilitateko idazpenen alta.
- Kontabilitateko idazpenak ezeztatzea.
- Datuen kontsultak:
    - Kontabilitateko ekitaldieak.
    - Aurrez hornitutako idazpenak.
    - Produktuen izakinak establezimenduan.
    - Produktuen izakinen itxiera establezimenduan.

Zerbitzu mota bakoitzak egitura semantiko ezberdina izango du, eta zehaztapen teknikoen dagozkien dokumentuetan zehaztuko da.

Kontabilitateko idazpenak, behin hornituta, ezin izango dira aldatu. Akatsa egotekotan, ezeztatu egin daiteke.

Ezeztatzeak ekarriko du beste idazpen bat egitea, deuseztatutako idazpenaren datu berekin baina deuseztatze mota identifikatuta. Mota horrek esan nahi du zenbateko numerikoen zeinua jatorrizko idazpenaren kontrakoa dela.

Idazpen batean aldaketa bat egiteko ezinbestekoa izango da baja ematea kontabilitateko idazpenari eta ezeztatutako idazpenaren erreferentzia barne hartuko duen beste kontabilitateko idazpen baten alta egitea.

## 3.1 Establezimendua hautatu

Aplikazioan sartu bezain laster, erabiltzaileari honako pantaila hau azalduko zaio:




*3. irudia: Establezimendua hautatu*

Pantaila horretan, erabiltzaileak honako datu hauek sartu behar ditu:

- Establezimenduaren IFZ
  - Pertsona fisiko edo juridiko gisa sartuz gero, Bizkaibaik “Ordezkari” gisa identifikatzen duena, esparrua hutsik edo gaituta egongo da.
  - Bizkaibaik “Ez ordezkari” gisa identifikatzen duen pertsona juridiko gisa sartuz gero, NIFa P, Q, R edo S letrekin hasten bada, esparrua sartzeko IFZrekin azalduko da, baina gaituta.
  - Gainerako kasuetan, esparru horretan jasoko da sartzeko IFZ, eta desgaituta.
- Establezimenduaren Jarduera Ekonomikoaren Kodea
- Establezimenduaren jarduerari dagokion zerga
- SILICIE bertsioa
  - 1 bertsioa: 2025/07/01 baino arinagoko mugimendu data duten idazpenentzako.
  - 2 bertsioa: 2025/01/01 baino geroagoko mugimendu data duten idazpenentzako.

## 3.2 Menu nagusia

Erabiltzaileak establezimendua, zerga eta bertsioa identifikatzen dituenean, menua eta hautatutako datuak erakusten zaizkio. Lehenespenez hautatuta azaltzen da menuko “Kontabilitateko Ekitaldien Kontsulta” aukera.




*4. irudia: Menu nagusia eta hautatutako datuak*

Menuaren aukerak honako hauek dira:

- Kontabilitateko Ekitaldien Kontsulta
- Kontabilitateko Ekitaldiaren Irekitzea

## 3.3 Kontabilitateko Ekitaldiaren Irekitzea

Erabiltzailea menuko "Kontabilitateko Ekitaldiaren Irekitzea" aukerara joatean, honako iragazkia azaltzen da:




*5. irudia: Kontabilitateko ekitaldia irekitzearen formularioa*

Erabiltzaileak ireki nahi duen ekitaldia bete behar du.

Erabiltzaileak "Gorde" botoia sakatzen duenean, formularioan sartutako datuek ez badituzte betetzen formatu edo negozioaren balidazioak, akats bakoitza erakusten da dagokion esparruan.




*6. irudia: Kontabilitateko ekitaldia irekitzearen formularioan hautemandako akatsak*

Alderantziz, formularioan sartutako datuek balidazio guztiak betetzen badituzte, aplikazioak erabiltzailea konfirmazio pantailara birbideratzen du.




*7. irudia: Kontabilitateko ekitaldia irekitzearen baieztapena*

## 3.4 Kontabilitateko Ekitaldien Kontsulta

Erabiltzailea menuko “Kontabilitateko Ekitaldien Kontsulta” aukerara joatean, honako iragazkia azaltzen da:




*8. irudia: Kontabilitateko ekitaldien kontsultako iragazkia*

Erabiltzaileak “Iragazi” botoia sakatzen duenean, jarraian adierazitako zenbakitutako taula agertzen zaio, kontabilitateko ekitaldien datuekin, eta ikono bat goiko eskuineko aldean, Excelera inportatzea ahalbidetzen duena.



| KONTABILITATEKO EKITALDIAREN ZENBAKIA | ESTABLEZIMENDUKO TITULARRAREN JEK | KONTABILITATEKO EKITALDIA | EGOERA | IREKITZE DATA | IXTE DATA | IDAZPENAREN ZBK. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ES00048HZ001E2025001 | ES00048HZ001E | 2025 | [AB] Irekita | 2025/10/29 12:06:30 | | 4 |
| ES00048HZ001E2026001 | ES00048HZ001E | 2026 | [AB] Irekita | 2026/01/22 12:38:18 | | 0 |



*9. irudia: Kontabilitateko ekitaldien kontsultaren emaitza*

Erabiltzaileak lerro bat hautatzen duenean eta “Xehetasuna Ikusi” botoia sakatzen duenean, aplikazioak kontabilitateko ekitaldiaren datu guztiak biltzen dituen pantaila batera birbidaltzen du.

## 3.5 Kontabilitateko Ekitaldiaren Xehetasuna

Kontabilitateko ekitaldiaren xehetasunaren pantailak ondorengoko aukerak ematen ditu:




*10. irudia: Kontabilitateko ekitaldiaren xehetasuna*

Ekitaldia irekita badago eta aurreko ekitaldi batekoa baldin bada, “Ekitaldi Itxi” botoia ere agertzen da, 3.5.6 Kontabilitateko Ekitaldiaren Itxiera atalean azaltzen dena.

Puntu honetatik aurrera, uneoro zein kontabilitateko ekitaldiren gain ari garen lanean jakiteko, kontabilitateko ekitaldiaren datuak dituen ondorengoko goiburua erakusten da.




*11. irudia: Kontabilitateko ekitaldiaren goiburua*

### 3.5.1 Kontabilitateko Idazpenen Kontsulta

Erabiltzaileak “Idazpenaren Kontsulta” botoia sakatzean, honako iragazkia azaltzen da:




*12. irudia: Kontabilitateko idazpenen kontsultako iragazkia*

Erabiltzaileak idazpenaren zenbakia edo data tarteetariko bat adierazi behar du.

Erabiltzaileak “iragazi” botoia sakatzen duenean, jarraian adierazitako zenbakitutako taula agertzen zaio, idazpenen datuekin, eta ikono bat goiko eskuineko aldean, Excelera inportatzea ahalbidetzen duena.



| CSV MENSAJE | AURKEZLEAREN IFZ | AURKEZLEAREN SOZIETATEAREN IZENA | AURKEZPEN DATA | IDAZPENAREN ZENBAKIA |
|---|---|---|---|---|
| 8N4VUPZ7TMLUVWJR | 16064852L | TEAM VITALITY | 2026/01/22 13:34:10 | 2026ES00048HZ001EEXM0000 |
| 8N4VUPZ7TMLUVWJR | 16064852L | TEAM VITALITY | 2026/01/22 13:34:10 | 2026ES00048HZ001EEXM0000 |
| 8N4VUPZ7TMLUVWJR | 16064852L | TEAM VITALITY | 2026/01/22 13:34:10 | 2026ES00048HZ001EEXM0000 |
| 8N4VUPZ7TMLUVWJR | 16064852L | TEAM VITALITY | 2026/01/22 13:34:10 | 2026ES00048HZ001EEXM0000 |
| 8N4VUPZ7TMLUVWJR | 16064852L | TEAM VITALITY | 2026/01/22 13:34:10 | 2026ES00048HZ001EEXM0000 |
| 8N4VUPZ7TMLUVWJR | 16064852L | TEAM VITALITY | 2026/01/22 13:34:10 | 2026ES00048HZ001EEXM0000 |
| 8N4VUPZ7TMLUVWJR | 16064852L | TEAM VITALITY | 2026/01/22 13:34:10 | 2026ES00048HZ001EEXM0000 |
| 8N4VUPZ7TMLUVWJR | 16064852L | TEAM VITALITY | 2026/01/22 13:34:10 | 2026ES00048HZ001EEXM0000 |
| 8N4VUPZ7TMLUVWJR | 16064852L | TEAM VITALITY | 2026/01/22 13:34:10 | 2026ES00048HZ001EEXM0000 |
| 8N4VUPZ7TMLUVWJR | 16064852L | TEAM VITALITY | 2026/01/22 13:34:10 | 2026ES00048HZ001EEXM0000 |



*13. irudia: Kontabilitateko idazpenen kontsultaren emaitza*

Erabiltzaileak lerro bat hautatzen duenean eta “Xehetasuna ikusi” botoia sakatzen duenean, aplikazioak kontabilitateko idazpenaren datu guztiak biltzen dituen pantaila batera birbidaltzen du.

**KONTABILITATEKO IDAZPENEAN** XEHETASUNA

**IDAZPENAREN** DATUAK

**IDAZPENAREN ZENBAKIA:** 2026ES00048HZ001EEXM00000008

**IDAZPENAREN EGOERA:** A - AKTIBO

**IDAZPEN MOTA:** 1 - IDAZPENAREN ALTA

**ESLEITUTAKO ERREFERENTZIA ZENBAKIA:** 000017

**IDAZPENA AURREKO ZENBAKIA:**

**BERRIZ SARTU AURREKO IDAZPENAREN ZENBAKIA:**

**DATAREN** DATUAK

**MUGIMENDUAREN DATA:** 2026/01/18

**KONTABILITATE ERREGISTROAREN DATA:** 2026/01/19

**MUGIMENDUAREN** DATUAK

**MUGIMENDU MOTA:** H01 - IREKIERA

**GUTXIAGOKO DIFERENTZIAK:** HI18 - GAS HODIEN SAREA

**ERREGIMEN FISKALA:** 1 - ATXIKIA

**ERALDATZEKO/ESKURATZEKO ERAGIKETEN** DATUAK

**ERAGIKETA MOTAL:** H01 - ERREGAI MODUAN AUTOKONTSUMITZEA

**ERAGIKETA ZENBAKIA:** 1

**SALMENTA-UNITATEAREN DESKRIBAPENA:** DESCRIPCIÓN A

**SALMENTA-UNITATEAREN KODEA:** CÓDIGO A

**AURREKO FABRIKAZIO ERAGIKETAREN ZENBAKIA:** NÚMERO OPERACIÓN A

**EGIAZTAGIRIAREN** DATUAK

**DOKUMENTUARI ESLEITUTAKO MOTA:** J01 - JUSTIFIKAZIO DOKUMENTU ADMINISTRATIBOA (E-DA)

**DOKUMENTUARI ESLEITUTAKO ZENBAKIA:** 1

**JATORRI/XEDE** DATUAK

**IDENTIFIKAZIO-DOKUMENTU MOTA:** 1 - ESPAINIAKO IFZ EDO AIZ

**IDENTIFIKAZIO-DOKUMENTU ZENBAKIA:** 78918740J

**SOZIETATEAREN IZENA:** RAZÓN SOCIAL OD

**JEK/SEED ZENBAKIA:** ES00048H7004T

**HORNIGAILU ZENBAKIA:** SURTIDOR 001

**KONTAGAILUA IRAKURTZEA:** 111.111.111.111.111,123

**AIREONTZIAREN IDENTIFIKAZIOA:** AERONAVE 001

**ZERGA BEREZIAREN JASANARAZPEN** DATUAK

**JASANARAZPEN IDENTIFIKAZIO-DOKUMENTU MOTA:** 1 - ESPAINIAKO IFZ EDO AIZ

**JASANARAZPEN IDENTIFIKAZIO-DOKUMENTU ZENBAKIA:** 78918740J

**JASANARAZPEN SOZIETATEAREN IZENA:** RAZÓN SOCIAL REPERCUSIÓN

**PRODUKTUAREN** DATUAK

**EPIGRAFE:** 1.1

**EPIGRAFE KODEA:** B0 - BERUNA DUTEN GASOLINAK

**NC KODEA:** 2204

**KOPURUA:** 1,01

**NEURKETA UNITATEA:** LTR - LITROA

**DESKRIBAPENA:** GASOLINA

**ERREFERENTZIA:** GAS0001

**DENTSITATEA:** 11,5

**HIDROKARBUREN** DATUAK

**BERO AHALMENA:** 0,4

**OHARRAK**

1

ITZULI

*14. irudia: Kontabilitateko idazpenaren xehetasuna Hidrokarburoak*

Erabiltzaileak lerro bat hautatzen duenean eta “Deuseztatu” botoia sakatzen duenean, aplikazioak “Formularioagatiko deuseztatzea” aukerara eramaten du, non idazpenaren zenbakia adierazita dagoen.




*15. irudia: Kontabilitateko idazpena deuseztatzeko formularioa*

### 3.5.2 Izakinen Kontsulta

Erabiltzaileak “Izakinen Kontsulta” botoia sakatzean, honako iragazkia azaltzen da:




*16. irudia: Izakinen kontsultako iragazkia*

Erabiltzaileak “Iragazi” botoia sakatzen duenean, jarraian adierazitako zenbakitutako taula agertzen zaio, izakinen datuekin, eta ikono bat goiko eskuineko aldean, Excelera inportatzea ahalbidetzen duena.




*17. irudia: Izakinen kontsultaren emaitza*

Erabiltzaileak lerro bat hautatzen duenean eta “Ikus Izakinaren Xehetasuna” botoia sakatzen duenean, aplikazioak izakinen saldoaren datu guztiak biltzen dituen pantaila batera birbidaltzen du.




*18. irudia: Izakinen saldo baten xehetasuna*

Erabiltzaileak lerro bat hautatzen duenean eta “Ikus Azken Idazpenaren Xehetasuna” botoia sakatzen duenean, aplikazioak izakinen saldoa eguneratu zuen azken kontabilitateko idazpenaren datu guztiak biltzen dituen pantaila batera birbidaltzen du.


**KONTABILITATEKO IDAZPENEAN** XEHETASUNA

**IDAZPENAREN** DATUAK
**IDAZPENAREN ZENBAKIA:** 2026ES00048HZ001EEXM00000013
**IDAZPENAREN EGOERA:** A - AKTIBO
**IDAZPEN MOTA:** 2 - IDAZPENA BALIOGABETZEA
**ESLEITUTAKO ERREFERENTZIA ZENBAKIA:** ANULADO102
**IDAZPENA AURREKO ZENBAKIA:** 2026ES00048HZ001EEXM00000007
**BERRIZ SARTU AURREKO IDAZPENAREN ZENBAKIA:**
**DATAREN** DATUAK
**MUGIMENDUAREN DATA:** 2026/01/18
**KONTABILITATE ERREGISTROAREN DATA:** 2026/01/22
**MUGIMENDUAREN** DATUAK
**MUGIMENDU MOTA:** H01 - IREKIERA
**GUTXIAGOKO DIFERENTZIAK:** HI18 - GAS HODIEN SAREA
**ERREGIMEN FISKALA:** 1 - ATXIKIA
**ERALDATZEKO/ESKURATZEKO ERAGIKETEN** DATUAK
**ERAGIKETA MOTAL:** H01 - ERREGAI MODUAN AUTOKONTSUMITZEA
**ERAGIKETA ZENBAKIA:** 1
**SALMENTA-UNITATEAREN DESKRIBAPENA:** DESCRIPCIÓN A
**SALMENTA-UNITATEAREN KODEA:** CÓDIGO A
**AURREKO FABRIKAZIO ERAGIKETAREN ZENBAKIA:** NÚMERO OPERACIÓN A
**EGIAZTAGIRIAREN** DATUAK
**DOKUMENTUARI ESLEITUTAKO MOTA:** J01 - JUSTIFIKAZIO DOKUMENTU ADMINISTRATIBOA (E-DA)
**DOKUMENTUARI ESLEITUTAKO ZENBAKIA:** 1
**JATORRI/XEDE** DATUAK
**IDENTIFIKAZIO-DOKUMENTU MOTA:** 1 - ESPAINIAKO IFZ EDO AIZ
**IDENTIFIKAZIO-DOKUMENTU ZENBAKIA:** 78918740J
**SOZIETATEAREN IZENA:** RAZÓN SOCIAL OD
**JEK/SEED ZENBAKIA:** ES00048H7004T
**HORNIGAILU ZENBAKIA:** SURTIDOR 001
**KONTAGAILUA IRAKURTZEA:** 111.111.111.111.111,123
**AIREONTZIAREN IDENTIFIKAZIOA:** AERONAVE 001
**ZERGA BEREZIAREN JASANARAZPEN** DATUAK
**JASANARAZPEN IDENTIFIKAZIO-DOKUMENTU MOTA:** 1 - ESPAINIAKO IFZ EDO AIZ
**JASANARAZPEN IDENTIFIKAZIO-DOKUMENTU ZENBAKIA:** 78918740J
**JASANARAZPEN SOZIETATEAREN IZENA:** RAZÓN SOCIAL REPERCUSIÓN
**PRODUKTUAREN** DATUAK
**EPIGRAFE:** 1.1
**EPIGRAFE KODEA:** B0 - BERUNA DUTEN GASOLINAK
**NC KODEA:** 2204
**KOPURUA:** 1,01
**NEURKETA UNITATEA:** LTR - LITROA
**DESKRIBAPENA:** GASOLINA
**ERREFERENTZIA:** GAS0001
**DENTSITATEA:** 11,5
**HIDROKARBUREN** DATUAK
**BERO AHALMENA:** 0,4
**OHARRAK**
OBSERVACIONES ANULACIÓN 2026ES00048HZ001EEXM00000007

ITZULI

*19. irudia: Kontabilitateko idazpen baten xehetasunak Hidrokarburoak*

### 3.5.3 Izakinen Itxieren Kontsulta

Izakinen itxiera: data jakin batean, establezimendu baten izakin propioen datuak finkatzea da, bere produktu bakoitzerako, jakinarazitako idazpenen mugimendu data eta aurkezpen data kontuan hartuta. Datuak hilabetero finkatzen dira (izakinen itxiera ere esaten zaio), hau da, finkatze zehatza egin den hilabeteko azken egunera arteko datuak hartzen dira kontuan.

Erabiltzaileak “Izakinen Itxieren Kontsulta” botoia sakatzean, honako iragazkia azaltzen da:




*20. irudia: Izakinen itxieren kontsultaren iragazkia.*

Kontsulta pantailan bilaketa egiteko irizpideak adierazten dira. Nabarmendu beharreko eremuak honako hauek dira:

Mugimenduaren dataren hilabetea: Izakinen itxiera kontsultatu nahi den kontabilitateko ekitaldiari dagokion hilabetea.

Karga unea: Izakinen itxiera finkatzeko hainbat uneri dagokio. Esparru honetan, honako tarte hauen artean aukera daiteke:

- Hurrengo hilabeteko hamargarren eguna.
- Hurrengo hilabeteko hogeita batgarren eguna.
- Bi hilabete ondorengo lehenengo eguna.
- Urtekoa.

Aurreko tarteren bat aukeratu ezean, karga une guztiei dagozkien itxierak eskuratuko dira.

Erabiltzaileak “Iragazi” botoia sakatzen duenean, jarraian adierazitako zenbakitutako taula agertzen zaio, izakinen itxieren datuekin, eta ikono bat goiko eskuineko aldean, Excelera inportatzea ahalbidetzen duena.




*21. irudia: Izakinen itxieren kontsultaren emaitza*

Erabiltzaileak lerro bat hautatzen duenean eta “Ikus Izakinen itxierak xehetasun” botoia sakatzen duenean, aplikazioak izakinen itxieren datu guztiak biltzen dituen pantaila batera birbidaltzen du.




*22. irudia: Izakin itxiera baten xehetasuna*

#### *3.5.3.1 Sistemaren hasierako karga*

Sisteman egin den izakinen itxieren hasierako karga honako hau izan da:

- 2025ko ekitaldiko hilabeteak: uztailetik aurrerako guztiak.

#### *3.5.3.2 Hilabeteko kargak*

Egun, finkatzeen hilabeteko hainbat egikaritze daude, hona hemen xehetasunak:

- Hurrengo hilabeteko hamargarren eguna: Itxiera egiten da kontuan izanda mugimendu data hilabeteko azken eguna (edo lehenago) duten idazpenak, eta horien aurkezpen data hurrengo hilabeteko hamargarren egunean (edo lehenago) izan bada. Adibidez, 2026eko martxoaren itxieran kontuan izan beharko lirateke 2026eko martxoaren 31ra arteko mugimendu data duten idazpen guztiak, baina aurkezpen data 2026eko apirilaren 10eko 22:00etara arte izango litzateke (kargaren egikaritze ordutegia, gutxi gorabehera).

- Hurrengo hilabeteko hogeita batgarren eguna: Itxiera egiten da kontuan izanda mugimendu data hilabeteko azken eguna (edo lehenago) duten idazpenak, eta horien aurkezpen data hurrengo hilabeteko hogeita batgarren egunean (edo lehenago) izan bada. Adibidez, 2026eko martxoaren itxieran kontuan izan beharko lirateke 2026eko martxoaren 31ra arteko mugimendu data duten idazpen guztiak, baina aurkezpen data 2026eko apirilaren 21eko 22:00etara arte izango litzateke (kargaren egikaritze ordutegia, gutxi gorabehera).

- Bi hilabete ondorengo lehenengo eguna: Itxiera egiten da kontuan izanda mugimendu data hilabeteko azken eguna (edo lehenago) duten idazpenak, eta horien aurkezpen data hurrengo bi hilabeteetako lehenengo egunean (edo lehenago) izan bada. Adibidez, 2026eko martxoaren itxieran kontuan izan beharko lirateke 2026eko martxoaren 31ra arteko mugimendu data duten idazpen guztiak, baina aurkezpen data 2026eko maiatzaren 1eko 22:00etara arte izango litzateke (kargaren egikaritze ordutegia, gutxi gorabehera).

#### *3.5.3.3 Urteko karga*

Egun, finkatzeen urteko egikaritze bat dago, hona hemen xehetasunak:

Urteko urtarrilaren 15etan aparteko itxiera bat egiten da aurreko urteko hilabete bakoitzerako, kontuan izanda honako idazpen hauek: hilabete bakoitzeko azken egunera arteko mugimendu data dutenak eta hurrengo urteko urtarrilaren 15eko gehieneko aurkezpen data dutenak. Adibidez, 2026ko martxoaren itxieran kontuan izan beharko lirateke 2026ko martxoaren 31ra arteko mugimendu data duten idazpen guztiak, baina aurkezpen data 2027eko urtarrilaren 15eko 22:00etara arte izango litzateke (kargaren egikaritze ordutegia, gutxi gorabehera).

### 3.5.4 Kontabilitateko Idazpenen Alta

#### *3.5.4.1 Fitxategia Inportatzeagatiko Alta*

Erabiltzaileak “Idazpen Alta” botoia sakatzean, “Fitxategia inportatzeagatiko alta” erlaitza duen pantaila azaltzen zaio aurrehautatuta:




*23. irudia: Fitxategia inportatzeagatik kontabilitateko idazpenen alta emateko formularioa*

Honako esparru hauek agertzen dira bertan:

- Inportatzeko CSV goiburuak dituen txantiloira esteka.
- Inportatzeko CSV adibide batera esteka.
- Inportatu beharreko fitxategia eransteko esparrua.

Erabiltzaileak “Inportatu” botoia sakatzen duenean, sartutako datuen normalizazioa adierazten duen “Fitxategia inportatzeagatiko altaren baieztapena” ohar pantaila agertzen da.

Gero, fitxategiak ez baditu betetzen negozioko balidazioak, pantailan CSV fitxategiak dituen akatsen taula bat erakusten da.

Taula horrek honako zutabe hauek ditu:

- Idazpena: akatsa duen ilararen zenbakia
- Zutabea: akatsa duen zutabearen izena.
- Akatsa: akatsaren deskribapena.




*24. irudia: Antzemandako akatsen zerrenda*

Erabiltzaileak “Inportatu” botoia sakatzen duenean, fitxategiak negozioaren balidazioak betetzen baditu, baieztatzeko pantailara birbideratzen du. Bada, horretan mezu bat erakusten da, adierazten duena idazpenen alta behar bezala eman dela, aurkeztu diren data eta ordua eta horniketari dagokion baieztapenerako kode segurua.

Erantzunaren CSV deskargatzeko botoi bat ere gaitzen da.




*25. irudia: Fitxategia inportatzeagatik kontabilitateko idazpenen alta emateko baieztapena*

### 3.5.4.2 Formulario Bidezko Alta

Erabiltzaileak "Formularioagatiko alta" erlaitza hautatzen duenean, pantailak "Fitxategia inportatzeagatiko altari" dagokion formularioa ezkutatzen du eta honako formulario hau erakusten du:




*26. irudia: Kontabilitateko idazpenen alta formularioa Hidrokarburoak*

Erabiltzaileak “Gorde” botoia sakatzen duenean, formularioan sartutako datuek ez badituzte betetzen formatu edo negozioaren balidazioak, akats bakoitza erakusten da dagokion esparruan.




*27. irudia: Kontabilitateko idazpenen alta formularioan hautemandako akatsak*

Alderantziz, formularioan sartutako datuek balidazio guztiak betetzen badituzte, aplikazioak erabiltzailea konfirmazio pantailara birbideratzen du.




*28. irudia: Kontabilitateko idazpenen altaren baieztapena Hidrokarburoak*

### 3.5.5 Kontabilitateko Idazpenen Deuseztatzea

#### *3.5.5.1 Fitxategia Inportatzeagatiko Deuseztatzea*

Erabiltzaileak “Idazpenen Deuseztatzea” botoia sakatzean, “Fitxategia inportatzeagatik deuseztatzea” erlaitza duen pantaila azaltzen zaio aurrehautatuta:




*29. irudia: Fitxategia inportatzeagatik kontabilitateko idazpenak deuseztatzeko formularioa*

Honako esparru hauek agertzen dira bertan:

- Inportatzeko CSV goiburuak dituen txantiloira esteka.
- Inportatzeko CSV adibide batera esteka.
- Inportatu beharreko fitxategia eransteko esparrua.

Erabiltzaileak “Inportatu” botoia sakatzen duenean, sartutako datuen normalizazioa adierazten duen “Fitxategia inportatzeagatiko deuseztatzearen baieztapena” ohar pantaila agertzen da.

Gero, fitxategiak ez baditu betetzen negozioko balidazioak, pantailan CSV fitxategiak dituen akatsen taula bat erakusten zaio.

Taula horrek honako zutabe hauek ditu:

- Idazpena: akatsa duen ilararen zenbakia
- Zutabea: akatsa duen zutabearen izena.
- Akatsa: akatsaren deskribapena.




*30. irudia: Antzemandako akatsen zerrenda*

Erabiltzaileak “Inportatu” botoia sakatzen duenean, fitxategiak negozioaren balidazioak betetzen baditu, baieztatzeko pantailara birbideratzen du. Bada, horretan mezu bat erakusten da, adierazten duena idazpenen alta behar bezala eman dela, aurkeztu diren data eta ordua eta horniketari dagokion baieztapenerako kode segurua.

Erantzunaren CSV deskargatzeko botoi bat ere gaitzen da.




*31. irudia: Fitxategia inportatzeagatik kontabilitateko idazpenak feuseztatzeko baieztapena*

### 3.5.5.2 Formulario Bidezko Deuseztatzea

Erabiltzaileak “Formularioagatiko deuseztatzea” erlaitza hautatzen duenean, pantailak “Fitxategia inportatzeagatik deuseztatzea” dagokion formularioa ezkutatzen du eta honako formulario hau erakusten du:




*32: Kontabilitateko idazpenak deuseztatzeko formularioa*

Erabiltzaileak “Gorde” botoia sakatzen duenean, formularioan sartutako datuek ez badituzte betetzen formatu edo negozioaren balidazioak, akats bakoitza erakusten da dagokion esparruan.




*33. irudia: Kontabilitateko idazpenak deuseztatzeko formularioan hautemandako akatsak*

Alderantziz, formularioan sartutako datuek balidazio guztiak betetzen badituzte, aplikazioak erabiltzailea konfirmazio pantailara birbideratzen du.




*34. irudia: Kontabilitateko idazpenen deuseztatzea baieztatzea*

### 3.5.6 Kontabilitateko Ekitaldiaren Itxiera

Aurreko ekitaldietako kontabilitateko ekitaldien xehetasunaren pantailak ondorengoko aukera erakusten ditu:




*35. irudia: Kontabilitateko ekitaldiaren xehetasuna*

Ekitaldia irekita badago eta aurreko ekitaldi batekoa bada, “Ekitaldia Itxi” botoia erakusten da.

Erabilzaileak “Ekitaldia Itxi” botoia sakatzean, kontabilitateko ekitaldiaren itxieraren konfirmazio pantaila agertzen da. “Onartu” botoiz sakatuz gero, aplikazioak erabiltzailea baieztapen pantailara birbideratzen du.




*36. irudia: Kontabilitateko ekitaldiaren itxieraren baieztapena*

Sabino Arana, 44
48013 BILBO (Bizkaia)

Tel. zk.: (+34) 944 068 900
Faxa: (+34) 944 068 800

e-mail: lantik@bizkaia.eus
http://lantik.bizkaia.eus

**ER-2023/2005** Informatika aplikazioak diseinatu, garatu eta mantentzea.
**ER-0739/2006** Bizkaiko Foru Aldundiarentzako ondasun eta zerbitzuen erosketa eta informatika ekipamenduaren hornidura eta instalazioa.
**ER-0811/2008** Bezeroentzako arreta.